Pero, pese a estar mucho mejor que hace cuatro años, tenemos nuevos retos de cara a los próximos años. Tenemos que responder a las nuevas realidades laborales y organizar esos sectores. Me refiero, por ejemplo, a las plataformas digitales o los sectores que tienen un alto porcentaje de teletrabajo. Es un reto enorme organizar esos sectores, pero es imprescindible.

El otro reto que quiero destacar son campañas y objetivos que en el pasado eran troncales y que deben volver a serlo. Tenemos que volver a poner en el centro de la negociación colectiva dinámicas como *Jai egunetan denok jai* o las iniciativas relacionadas con la brecha salarial. En estos dos temas creo que tenemos que hacer algo de autocrítica, son dos puntos que hay que volver a impulsarlos.

### En el congreso se debatirán y votarán cinco resoluciones. ¿Qué destacarías de estas resoluciones?

Cuando empezamos a trabajar en la organización del congreso tuvimos claro tenía que haber tres



Ane Alberdi

ideas principales: la igualdad, la organización y como ganar en la negociación colectiva. Las cinco resoluciones intentan responder a estos retos. ¿Cómo nos tenemos que organizar para lograr la igualdad y que todas ganemos?

Tenemos nuevas realidades en el mundo del trabajo, sufrimos una gran ofensiva capitalista, hay una ola fascista y reaccionaria... Son realidades que sufre la clase trabajadora, y para hacerle frente nos tenemos que organizar. Solo así podremos mejorar las condiciones laborales y de vida de la clase trabajadora. No hay otra. En este contexto, queremos incidir en el concepto de igualdad, queremos darle un sentido más amplio. Hasta ahora este término lo relacionábamos sobre todo con la opresión de género.

Hemos hecho un gran esfuerzo en meter a todos esos trabajadores y trabajadoras que estaban en los márgenes, trabajar con ellas, politizarlas, inculcar una cultura antifascista... Hemos hecho un gran esfuerzo para meter en el centro de la organización, de la negociación colectiva a las personas migradas. Pero ahora tenemos que dar un nuevo paso adelante y nos tenemos que organizar todavía mejor, porque

la organización es vital para poder llegar a toda la clase trabajadora y a todos los centros de trabajo.

Y, a la par, tenemos que organizarnos mejor para preparar mejor la negociación colectiva. Creo que los últimos años hemos dado pasos adelante en la buena dirección, pero tenemos que seguir dando más pasos, porque tenemos retos pendientes como, por ejemplo, la estatización. La estatización no es una amenaza, es una realidad. Y solo podremos parar esta realidad con organización y con la negociación colectiva.

### ¿Y cuáles serán las claves de la futura negociación colectiva?

Tenemos nuestra hoja de ruta, como, por ejemplo, una línea roja situada en los 1.600 euros mensuales. Si el congreso así lo aprueba, esta será una línea roja: solo firmaremos acuerdos que recojan un salario mínimo mensual de 1.600 euros.

Esto daría un evidente impulso a, sobre todo, las trabajadoras que se encuentran en una situación más precaria. Hace años pusimos el listón en 1.200 euros, luego en 1.400. Ahora la apuesta es ponerlo en 1.600. No es el único, pero sí es un modo de lograr un reparto más justo de la riqueza. ■

# ZERBITZUAK

IV. KONGRESU FEDERALA  
IV. CONGRESO FEDERAL

## BATZORDE IRAUNKORRERAKO PROPOSAMENA

\* Nazio Batzordeko kide gisa ere proposatzen da



Ana Mariela Lopez Irujo  
Itazkari Nagusia



Iratxe Urdinola  
Estatistika, Plan Estrategikoa,  
Kudeaketa Sistema, Irteera  
Eskumaketa



Lorena Ormaiztegui  
Buzo



Geroa Garcia Olaso  
Ekoenologia, Ingurugai,  
Gestioa-Durango  
Itazkari Nagusia



Iñaki Irujo  
Skema Informatikoa  
Ondarret



Mamen Urdinola  
Ondarret, Durango



Maria Uria Urdinola  
Ondarret, Durango  
Urdinola



Pablo Sanchez Gonzalez  
Ondarret

# BERDINTASUNERAKO ANTOLATU

Un sindicato para que ganemos tod@s





**Mitxel Lakuntza eta Amaia Muñoa.**  
idazkari nagusia eta idazkari  
nagusiaren-albokoa

# Genozidioa gelditu; Palestinaren erabakitze eskubidearen alde

**G**enozidioa gelditzea eta ahalik bizi gehien salbatzea da milaka lagun eta erakundek premiaz mundu guztian zehar hedatu duten oihua. Jende askok esperoan izan da Gazan egunero erortzen diren bonbak geldiarazi eta gosetea bukatzeko laguntza humanitarioari bide ematea.

Oraingoz arindua hartuagatik ere, zuhur jokatu behar da, Israelek behin eta berriz hautsi baititu aurreko su eten akordio batzuk. Netanyahu erakutsi du ez duela inolako gupidarik, kontu handiz hartu behar da oraingo urratsa, eta batez ere, nazioarteko presioari eutsi behar zaio bonbardaketak amai daitezen eta

laguntza humanitarioa benetan bana dadin.

Palestinaren herriarekiko elkartasunak, orain eta etorkizunean, eskatzen du jendartearen presioak eta mobilizazioak jarraitzea genozidioa behin betiko geldiarazteko, baina baita apartheid sionistaren sistema desagerrarazteko eta lurralde palestinarren okupazioa bertan behera uztarazteko ere.

Betekizun etikoa dugu europar erakundeen hipokrisia salatzea, ez baitute ezer ere egin, are, konplize izan dira, baita espainiar estatuko gobernu eta Pradalesen zein Chiviteren exekutiboak ere.

## **Genozidioa geldiarazi, palestinaren kausa ez ahaztu**

Palestinaren kausaren sakoneko erroak ahaztea nahi du Israelgo gobernuak; biztanleria palestinarra deshumanizatu nahi du, okupazioa eta palestinarren euren lurretik erauzteko plana gauzatzeko.

Horregatik, palestinar herriarekiko elkartasuna ezin da agortu genozidioaren salaketarekin; haien kausa gizateriaren beraren kausa da, eta era berean, erresistentzia anticolonialaren sinbolo orokorra da.

Galdegiten dugu okupazioaren bukaera eta apartheid israeldarraren

## **ERREDAKZIO TALDEA**

**Zuzendaria:** Iván Giménez.

**Koordinatzailea:** Gorka Quevedo.

**Idazlariak:** Nagore Uriarte, Haimar Kortabarria, Xabier Harluxet, Ainhara Plazaola, Lander Zabaleta, Davide Cabaleiro, Iñaki Zabaleta, Aiala Elorrieta

**Argitarazle:** ELA, Euskal Sindikatua. Barrainkua 13, Bilbao. 944 03 77 00

**www.ela.eus · landeia@ela.eus**

erregimenaren gaitzespena; finean, Palestinari Jordan ibaitik hasi eta Mediterraneo itsasoraino herri aske eta burujabea izateko aukera galarazten dion politika oro errefusatu behar dugu.

Euskal alderdiek erabaki behar dute –Gasteizko eta Iruñeko parlamentuetan, baita espainiar Kongresuan ere– konpromiso hori noraino hartuko duten beren gain. Hau da, posizioa finkatu behar dute eta, batik bat, erabaki noraino iritsiko diren Israelgo gobernuarekiko harremanak eteteko eta boikota galdegiteko exigentzian. Galdera honako hau da: Sanchezi ematen dioten sostengua baldintzatuko dute espainiar gobernuak Israeli egin beharreko boikotaren baitan, estatu hark Palestinaren eskubideak aintzat hartu arte?

Biztanleria palestinarraren genozidioa eta aspaldidanik pairatzen duen eskubide urraketa ezin da zigorrik gabe utzi. Hain zuzen, euskal erakundeek eta espainiar estatuak bat egin behar dute nazioarteko salaketekin eta eragin behar dute gizateriaren kontrako krimenen errudunak justiziaren aurrean eseri arte.

### **Boikotaren indarra. Israeli ez erosi eta ez saldu**

Euskal Herriak erakutsi du Palestinaren aldeko mobilizazio indartsua egiteko gauza dela, eta mezu argia plazaratu du: Israeli ezin zaio ezer saldu, ez erosi. ELAk palestinar auzian Euskal Herriaren ahotsa aldarrikatzen du, Israelen

**Detener un genocidio, salvar el mayor número de vidas, es la exigencia urgente de miles de personas y organizaciones en todo el mundo. Detener las bombas que caen sobre Gaza cada día, la entrada de ayuda humanitaria en medio de la hambruna, son ese alivio y respiro esperado.**

kontrako erabateko boikota eskatu duten mobilizazio ugarietan koherentzia historikoa adierazi baita; mezu hori, ELAren aburuz, saihestezina da.

Oraindik ere justifikaezineko harreman lotsagarri horiek dituzten enpresentzako mezu bat da hau. ELAk salatu izan ditu euskal enpresek (Sidenor, CAF, Artiach...) Israelekin dituzten harreman komertzialak, eta haien kontra agertu da; datozen asteetan sindikatuak gero eta premia handiagoa den ekinbide hori areagotu egingo du. Horregatik, ELAk lanuzteak deitu zituen urriaren 15erako, Israeli boikota gauzatu eta apartheid sionista zein lurralde palestinarren okupazioa amai dadin.

Horregatik, ELAren iritziz, Israelekiko edozein harreman zeharo eten behar dela eta kolonizazioa bertan behera geratu behar dela defendatzen duten erakundeen arteko aliantzak indartu behar dira.

ELAk aldarrikatzen du jendartearen mobilizazioak, grebak eta herri mugimenduen sareak eragina eta eraldaketa bultzatzeko indarra dutela. Aurrerapauso demokratiko, material eta kultural askok lotura zuzena dute jendarte zibilaren ekinbide gaitasun horrekin. Eta ondasun hori zaindu eta sendotu beharra dago gurean; palestinar herriarekiko elkartasunaren mesedetan iraun behar du. ■

**La solidaridad con el pueblo palestino no puede limitarse a la denuncia del genocidio, la causa palestina es la causa de la humanidad, pero también el símbolo global de la resistencia anticolonial. Es necesario exigir el fin de la ocupación y la condena del régimen de apartheid israelí y cualquier política que impida a Palestina su existencia como pueblo libre y soberano desde el río Jordán al Mediterráneo.**

# “Amiantoagatiko Konpentsazio Funtsa murriztatzailea eta diskriminatzailea da”

Bidelagun Fundazioak bi epai irabazi ditu, amiantoagatik hildako Sunsundegui (Altsasu) bi langileren familientzat; hala ere langileek ezin izango dute epaitegiek ezarritakoa jaso

> Landeia - David Pena

Bidelagun Fundazioak bi epai irabazi ditu, Sunsundegui (Altsasu) enpresan amiantoaren ondorioz hildako bi pertsonaren familientzako alargun-prestazioan 200.000 eurotik gorako kalte-ordaina eta %40ko errenergua dakartenak. Albiste ona da, zalantzarik gabe, baina gazi-gozoa ere. Izan ere, onartu berri den Amiantoagatiko Konpentsazio Funtsa aplikatzearen ondorioz, biktimek ezin izango dute Epaitegiak ezarritakoa jaso.

## Lehen epaia...

Aztertu ditzagun bi epaiak. Lehen epaian, Iruñeko Lan Arloko 1 zenbakiko Epaitegiak kalte-ordaina aitortu die pleurako mesoteliomak hildako langile baten senideei, Sunsundegui amiantoaren eraginpean egotearen ondorioz.

Epaitegiak 206.051,91 euroko kalte-ordaina ordaintzera kondenatzen du enpresa, alargunaren (138.914,88 euro), bi alabaren eta seme baten (22.379,01 euro bakoitzarentzat) artean banatuta. Hala ere, familia horrek askoz ere kopuru txikiagoa jasoko du Funtsean ezarritakoaren arabera; jaso beharreko zenbatekoa 96.621,24 eurokoa izango da (epai irmo batek ezartzen duena baino 109.430,67 euro gutxiago).



Nuria Alamillo Rodriguez eta David Pena, amiantoak hildako langile baten alaba eta Bidelagun Fundazioko abokatua, hurrenez hurren

## ...eta bigarrena

Bigarren kasuan, Epaitegi honek %40ko errenergua aitortu dio enpresa bereko biriketako minbiziaren ondorioz hildako langile baten emazteari. Sunsundegui enpresa hartzekodunen konkurtsoan dago, eta horrek esan nahi du familia horiek ia aukera osoz jo beharko dutela onartu berri den Amiantoagatiko Konpentsazio Funtsera, enpresaren likidezia faltagatik.

Hildakoaren alargunak, Sunsundeguiaren egungo kaudimengabezia-egoera ikusita, ez du kobratuko epaian aitortutako

alargun-prestazioaren %40ko errenergua, Funtsak ez baititu estaltzen errenergua eta bestelako prestazioak, baizik eta kalte-ordainak soilik. Era berean, familiak orain judizialki erreklamatu dezakeen kalte-ordaina, prestazioen errenergua irabazi ondoren, 172.825,31 eurokoa izango litzateke, baina Funtsak kalte-ordain horren 64.414,16 euro baino ez litzazke estaliko.

## Garaipen gazi-gozoa

Irabazi berri diren epai hauetan egiazta daitekeenez, Konpentsazio Funtsa biktimen justiziarako eta erreparaziorako tresna izatetik oso urrun dago. Ez bakarrik zenbatekoak

# CONSULTORIO JURÍDICO

askoz txikiagoak direlako eta abonu bakarrean ordaintzen direlako; baita ofizialki profesional gisa aitortutako gaixotasunak baztertzen direlako ere, bronkioaren neoplasia kasu. Halaber, ez da onartzen ez minbizi gastrointestinala, ez obulutegikoa, nahiz eta azaroaren 22ko 2023/2668 (EB) Zuzentarauak amianto-zuntzen eraginpean egoteak eragin ditzakeen gaixotasuntzat hartzen dituen.

Obulutegiko minbiziaren kasu zehatzean, gaixotasun hori ez onartzeak genero-arrakala sakontzen du, eta zuzeneko diskriminazioa eragiten du amiantoaren eraginpean egon diren emakumeengan. Azkenik, funts berriak murriztu egiten ditu onuradunak, eta kanpoan uzten ditu 35/2015 Legean jasota zeuden aurrekoak, anai-arrebak eta hurbilekoak. Esandako guztiagatik, Funtsak ez du modu integralean konpontzen, patologiak ikusezin bihurtzen ditu eta kanpoan uzten du biktimen familia-sarearen zati bat.

## “Murriztatzailea eta diskriminatzailea”

David Pena abokatua da, eta sorreratik Bidelagun Fundazioan dihardu. Penak salatzen duenez, “kasu hauek argi eta garbi erakusten dute funtsa ez dela nahikoa, murriztailea eta diskriminatzailea dela, eta irizpide ekonomizistei erreparazio-irizpideei baino gehiago erreparatzen diela”.

Amiantoaren biktimen oroimena ez errespetatzeaz gain, Nuria Alamillo Rodríguezek, hildako langile baten alabak, familiei eragiten zaien sufrimendua azpimarratzen du.

“Oso mingarria da administrazio-izapideen moteltasuna. Kontuan hartu aita 2020ko martxoan hil zela. Orain, bost urte geroago, langilearen alargunari prestazioen erreklama aitortu zaio, baina litekeena da erreklama hori ez kobratzea enpresaren likidezia faltagatik eta Konpentsazio Funtsak Gizarte Segurantzaren prestazioak jasotzen ez dituelako. Itxaronaldi luze horiekin eta ziurgabetasun horrekin, oso zaila da dolua ixtea”. ■

## Un Fondo que no resarce a las víctimas del amianto

Bidelagun Fundazioa ha ganado dos sentencias contra la empresa Sunsundegui (Altsasu). Hablamos de dos trabajadores fallecidos por exposición a amianto, y cuyos procedimientos fueron iniciados por sus familiares. Estas resoluciones reconocen, en un caso, una indemnización de responsabilidad civil de más de 200.000 euros para la viuda e hijas del fallecido y, en el segundo caso, un recargo de prestaciones del 40% sobre la pensión de viudedad de la esposa de uno de los fallecidos.

Ambos trabajadores estuvieron expuestos a fibras de amianto sin ningún tipo de protección respiratoria por un período muy prolongado de tiempo y no recibieron formación e información sobre la exposición al amianto hasta el año 1987. No consta que con anterioridad a esta fecha se hubiera evaluado el riesgo de exposición al amianto ni se hubieran realizado mediciones de exposición ambiental al amianto. La sentencia da como probado también que durante 40 años Sunsundegui no evaluó ni controló el ambiente de trabajo.

En todo caso, a la desprotección que sufrieron esos trabajadores expuestos a amianto en los años 60, 70 y 80 se suma ahora la desprotección a sus familias con el recién aprobado Fondo de Compensación Para las Víctimas del Amianto. En el caso de la primera sentencia el Juzgado condena a la empresa a pagar una indemnización total de 206.051,91 euros. Sin embargo, esta familia recibirá una cantidad muy inferior en base a lo establecido en el Fondo; la cantidad a percibir será de 96.621,24 euros (109.430,67 euros menos de lo que marca una sentencia firme). En el segundo caso, la viuda del fallecido, ante la actual situación de insolvencia de Sunsundegui, se quedará sin cobrar el recargo del 40% en la prestación de viudedad reconocido en sentencia, ya que el Fondo no cubre los recargos ni otras prestaciones de Seguridad Social, sino sólo indemnizaciones a tanto alzado. Asimismo, la indemnización que puede reclamar judicialmente ahora la familia, tras ganar el recargo de prestaciones, ascendería a 172.825,31 euros, sin embargo, el Fondo tan solo cubriría 64.414,16 euros de dicha indemnización.

Como se puede comprobar con estas sentencias, el Fondo de Compensación está muy lejos de ser un instrumento de justicia y reparación de las víctimas. No solo porque tal y como se ve las cuantías son muy inferiores y se pagan en un único abono para todas las personas afectadas; también porque se excluyen enfermedades reconocidas oficialmente como profesionales, como la neoplasia de bronquio.

Tampoco se reconoce el cáncer gastrointestinal ni el de ovario, pese a que la Directiva (UE) 2023/2668 de 22 de noviembre las contempla como enfermedades que pueden ser provocadas por la exposición a fibras de amianto. En el caso concreto del cáncer de ovario, no reconocer esta enfermedad ahonda en la brecha de género y genera una discriminación directa en las mujeres que han sufrido exposición al amianto.

Por último, el nuevo Fondo restringe las personas beneficiarias, dejando fuera a ascendientes, hermanos/as y personas allegadas que sí estaban contempladas en la Ley 35/2015. Por todo lo dicho, el Fondo no repara de manera integral, invisibiliza patologías y deja fuera a parte de la red familiar de las víctimas.



# Hezkuntzan borroka ideologikoa zabaltzeko xedea

**‘Hezkuntzaren beste hainbat erronka’**  
Gai monografikoan ELAk segregazioan, euskalduntzean, burokratizazioan, digitalizazioan, berrikuntza pedagogikoan edota hezkuntzaren merkantilizazioan sakontzen du

## > Xabi Irastorza

Ez da ohikoa sindikatu baten hausnarketan lan-baldintzez ez aritzea. Argitaratu berri dugun hezkuntzaren inguruko azken argitalpenean hezkuntzak dituen beste hainbat erronketara bideratu nahi dugu arreta eta hausnarketa. Ez, ordea, hezkuntzan diharduten langileen lan-baldintzak alde batera uztea erabaki dugulako edo gutxien ditugulako. Horiek izan dira azken urte luzeetako aldarrikapenak ELArentzat eta izaten

jarraituko dute aurreratzean ere. Irakasle, hezitzaile eta hezkuntzako langile kopuru nahikorik gabe, lan-baldintza onik gabe edo gelako ikasle kopurua egokirik gabe ezinezkoa da ikasle guztien ekitatea eta beharrezko hezkuntza bermatzea.

*Hezkuntzaren beste hainbat erronka*  
Gai monografikoan, ordea, arreta segregazioan, euskalduntzean, burokratizazioan, digitalizazioan, berrikuntza pedagogikoan edota hezkuntzaren merkantilizazioan jarri nahi izan dugu. Izan ere, hezkuntza

ezin da isolatuta ulertu: gizarte eredu kapitalistak eta zapalkuntza politiko-kulturalek baldintzatzen dute. Euskal Herriko langileen interesak ez dira lan-baldintzetan agortzen. Horregatik sindikatuak interesa du eskoletan gai hauen inguruko eztabaida hauspotzeko eta aurrera pausoak emateko.

## Burokraziaren zama astuna

Besteak beste, eskola-burokraziaren pisua jasanezina bihurtzen ari da. Gero eta irakasle gehiagok diote ikasgelatik kanpoko dokumentazioak –txostenak, memoriak, planifikazioak edo jarraipen-taulak– denbora eta energia gehiegi eskatzen duela, heziketa-lana bera lausotzeraino. Administrazioaren eskakizun amaigabeek hezkuntza-proiektuaren funtsa –ikasleekin harreman zuzena eta irakasleen lidergo pedagogikoa– estaltzen dute. Nola uztar liteke hezkuntza moduko zerbitzu publiko batek ezinbestekoa duen kontrol publiko eta administratiboa hezkuntzaren funtzio hezitzailea berreskuratzearekin? Hau da, nola egin ikastetxeak burokraziaren gurpil zorotik atera eta herritarren hezkuntzaren zerbitzura arituko den komunitate pedagogiko, demokratiko eta bizia?

## Teknologia berriak eta digitalizazioa

Teknologia berriak eta digitalizazioa hezkuntza eraldatzen ari dira. Baina noren interesen mesedetan ematen ari da digitalizazio hau? Pandemiak bizkortu zuen prozesu hau transnazional handien –Google, Microsoft, Apple– menpe ematen ari da, askotan irakasleen eta ikasleen antsietatea eta mendekotasuna areagotuz.

Azken urteetan onartu diren legeek teorikoki digitalizazio etiko eta burujabearen aldeko urratsak jasotzen dituen arren, praktikan kontrakoa gertatu da. Gure gobernuak transnazional handi hauekin itxi dituzte akordioak eta gure ikasgelak beraien tramankuluekin bete dituzte eta gure ikasleen garunak beraien sistemekin

kolonizatu. Nolakoa behar du teknologiaren erabilerak? Nola egin dezakegu hezkuntzaren, ikasleen eta herritarren zerbitzura egoteko?

## Segregazioaren aurkako borroka

Eskola-segregazioa gure hezkuntza-sistemaren zauri handienetakoa da. Azken bi hamarkadetan, jatorri sozial, ekonomiko eta kulturalaren arabera bereizketa areagotu egin da, eta administrazioek ez dute benetako neurri eraginkorrik hartu egoera aldatzeko. Gaia sakon ikertu dutenen hitzetan segregazioa ez omen da nahi gabeko albo-kalte bat, zapalkuntza ekintza kontziente eta deliberatua baizik.

Beraz, segregazioaren aurkako borroka ez da soilik hezkuntzaren kalitatearen aldeko borroka, justizia sozialaren aldeko borroka ere bada. Zer nolako hezkuntza politika eta zein neurri hartu behar dira jatorria atzerrian duten familietako ikasleak, pobrezia-egoeran daudenak, desgaitasunen bat dutenak edo ijito-jatorria dutenak eta euskal jatorria duten familietako ikasleak edo egoera sozioekonomiko onean bizi direnak elkarrekin eskolaratu eta bizikidetzara orekatua eraikitzeko?

## Euskara eta euskalduntzea

Euskararen biziberritzea ezin da hezkuntzatik bereizi. XX. mendeko ordezkapen prozesu gogor baten ondoren, indarberritzea etorri zen 60ko hamarkadan, baina azken bi hamarkadetan aurrerabideak eten dira eta egoera geldirik dago.

Gaur egun, herritarren %7k bakarrik du euskaraz trebetasun altua eta erabilera %12 ingurukoa da. Eskolak ezin du bakarrik, baina ezinbestekoa da: hizkuntza gaitasuna, erabilera, motibazioa eta atxikimendua indartu behar dira.

Euskara hutsezko irakaskuntza eredu funtsezkoa da elebiduntasun errealerako, eta esperientziak erakutsi du eskola publikoa dela euskararen transmisiorako apustu sendoena.



Aldi berean diogu, ordea, euskararen aldeko borroka ez dela gelan amaitzen: aisialdian, komunikabideetan eta lan-munduan euskaraz bizitzeko aukera zabaltzea ezinbestekoa dugu. Zein estrategia garatu behar ditugu hezkuntza sisteman eta zein eskolatik kanpo benetako euskalduntzea eta euskararen erabilera indarberritzeko?

## Hezkuntza enpresen zerbitzura?

“Konpetentzietan oinarrituriko hezkuntza” askotan berrikuntza pedagogiko gisa aurkezten zaigu. Haren jatorria, ordea, ez dago hezkuntza ikerketan eta hezkuntzaren demokratizazio eta unibertsalizazioaren aldeko bulkadan, botere ekonomikoen interes eta nahietan baizik.

Hezkuntza gizartearen askapen tresna izatetik kapitalaren zerbitzura egongo den tresna bihurtu nahi digute. Enpresa-munduak “eskulan malguagoa” behar du, eta hortik etorri da azken hamarkadetan hezkuntzatik eman den iraultzaren zati handi bat: hezkuntza pentsamendu kritikoa erabat izatetik, enpresen zerbitzura egongo den eskulan faktoria bihurtu nahi izatera. Nola egin aurre erasoaldi honi eta hezkuntza hausnarketa, garapen pertsonal, kritikotasuna lantzeko eta askatasunean irabazteko ariketa bihurtu?

Gai hauek guztiek eta argitalpen honetan sartu ez ditugun beste

hainbatek –genero zapalkuntzak eta heteropatriarkatuaren erreproduktzioak, esaterako– hezkuntza sistemaren norabide politikoa agerian uzten dute. Eskola ez da neutroa: gizarte ereduaren isla eta, aldi berean, haren eraldaketarako tresna.

Bide honetan, leihoak ireki eta pausoak emateko akuilu izan nahi du Gai Monografiko honek. Izan ere, hezkuntzaren borroka ez da soilik ikasgeletan gertatzen, gizarte osoaren auzia da. Horregatik, sindikatu gisa, gure helburua eztabaida hauek zabaltzea eta alternatibak eraikitzea, bai gure ikastetxeetan baita eskoletatik kanpo ere.

Pentsamendu kritikoa elikatu ezean, interes hegemonikoen zerbitzura egiten den adoktrinamenduaren morrontzan erortzeko arriskua dugu. Eta hori da, hain zuzen ere, hezkuntzan borroka ideologikoa zabaltzearen beharra. ■





## 4.200 pertsona etxebizitza eskubidearen alde!

Auzolanen 2. edizioak arrakasta ederra kausitu zuen: hitzaldi aretoak mukur, goi mailako parte hartzaileekin. Baiona Ttipian antolatutako ekimenetan parte hartzea ere oso handia izan zen

### > Malika Peyraut - ALDA

Auzolan –Etxebizitza Eskubidearen Egunaren– bigarren edizioa, urriaren 10ean eta 11n Baionan kausitua izan zen, 4.200 pertsonatik goiti bildu zituelarik. 40 egituratik goiti elkartu zituen elkarteen-herrixka, 400 pertsonatik goiti bildu zituzten 3 hitzaldiak, bazkari herrikoiak, haurren xokoa, animazio frango eta kontzertuak: ekitaldiak, lorturiko garaipenak ospatzeko eta etxebizitza politika deliberatu eta anbiziotsu

baten aldeko mezu argia bidaltzeko parada eman zuen, Herriko Etxeen mailatik Europako mailarat.

### Herriko bozak: etxebizitzaren arloko anbizio maila agerian emana da

Mukuru betea zen hitzaldi gelan, goi mailako hainbat hizlarik Herriko Etxe eta Elkargo mailako hauteskondeek etxebizitzaren arloan izanen dituzten erronkak azaldu zituzten: **Christophe Robertek** (Fondation pour le

Logement des Défavorisés-tik) jadanik lortuak izan diren eskubideek pairatzen dituzten mehatxuei buruz mintzatu zen; **Jean-Luc Berhok** (Soliha Euskal Herriko presidentek eta Inxauseta topaketen sortzaileak) tokiko eta europar mailako erronkak uztartzearen garrantzia.

Herrian Bizi-Se logger au Pays plataformak, **Gaëlle Vincens** eta **Patxi Iriart** ordezkaritza zituela, aukera baliatu zuen etxebizitza politika anbiziotsu batendako 17 neurri

aurkezteko. Neurri horiek oraindantik Ipar Euskal Herrian agertuko diren zerrenda guziei aurkeztuko direlarik: etxebizitza soziala garatzeko, bigarren etxebizitzak arautzeko, etxebizitzak behin betiko mublaturistiko bilakatzea gelditzeko, laborantza lurra babesteko, edota hutsik diren etxebizitzak berrerrabiltzeko.

### Alokairuak: behin-betiko mugatuak!

Eguna, halaber, alokairuen mugatzearen iraunkortasunaren eta hobekuntzaren aldeko mezu argia bidaltzeko parada izan zen. Ipar Euskal Herriko eremu tentsionatuan 2024ko azaroaren 25etik indarrean den neurri hau, frantses Estatu mailan esperimentazio gisa ezarria izan zen, eta 2026ko azaroan bukatuko da epe hori. **Iñaki Echaniz** Diputatuak bere informazio-misioaren ondorioak aurkeztu zituen; **Jean-René Etchegarayek** (Baionako auzapez eta Euskal Elkargoko lehendakariak) eta **Barbara Gomesek** (alokairuen mugatzearen arduraduna den Pariseko kontseilariak) beren kolektibitateen esperimentazioaren bilana egin zuten, eta Alda elkarteak mugatzearen hobetzeko proposamenak aurkeztu zituen.

### Etxebizitzaren aldeko borrokak, hemengoak eta hangoak

Estatu mailako testuinguru politikoa ezegonkortasun handiz markatua den une honetan, bukaerako mitinak argi utzi zuen mezua: lurraldeak, eta lehenik eta behin, auzo eta jendarte herrikoietako biztanleak bereziki gogor jotzen dituen etxebizitzaren krisiari buru egiteko maila guzietan ekin behar da.

Etxebizitzarekin arazoak izan dituzten alokatzaileen lekukotasunak eta pertsonen zerrenda, alokairuen mugatzearen luzapenaren aldeko argazki erraldoia, tokiko hautetsiei deia etxebizitza krisiaren kontrako borrokan parte har dezaten, baina baita dantzak eta kantuak ere eszenatokian agertu ziren,



bertan estatuko eta europar mailako elkarteetan (Belgika, Madril, Bartzelona) ordezkariak elkarlanean aritzeko borondatea berretsi dutelarik.

### 40 egitura baino gehiago eta animazio frango

Egun osoan zehar, jendeak informazioa biltzeko parada ukan zuen gaika antolaturiko elkarteetan herrixkan: alokatzeko etxebizitza xekatu, bere eskubideak defendatzeko laguntza lortu, espekulaziorik gabe jabetzara heldu, bestela eraiki, bestela kontsumitu, eta hemen zein beste lekuetan mobilizatu.

Zirkoa, antzerkia, haurrentako altxorren bilaketa jokoa

etxebizitzaren gaiarekin lotua, **Camille Chopin** eta **Guillaume Fauveauren** horma-argazki erakusketa etxebizitzaren hezetasunari buruz, Gau Txoria artistaren horma-irudia, herri-bazkari alaitua, ganerhustea: hainbat animaziok egun hau momento herrikoi eta alaia bilakarazi zuten, dena bururatu delarik gauean berant Zea Mays, Tapia eta Leturia, Bacano Banda eta Elektruka taldeen kontzertuekin.

Orotara, 4200 pertsonatik goiti eta 300 laguntzaile arizan ziren Auzolan-Etxebizitza Eskubidearen Eguna ekitaldia gauzatzen, eta hitzordu hau, etxebizitza eskubidearen arloari loturiko aurrerapausoak neurtzeko eta ondoko borroketarako kolektiboki antolatzeko momento garrantzitsua bilakatzen. ■



## Irene Garcia Aramendi zendu da, Osakidetzako langilea eta ELAren liberatua

Ekainaren 30ean Irene Garcia Aramendi hil zen, Osakidetzako langilea eta sindikatuko liberatua. Pello Igerezik, Negoziazio Kolektiboko arduradunak, omenaldi xume hau eskaini dio Ireneri. Hainbat urtez Pello Osakidetzako arduradun izan zen, eta bertan ezagutu zuen Irene.

### Agur Irene!

Idaztea batzuetan barneak husteko modu bat da. Eman lezake idaztean minak gorputzetik kanporatzen ditugula eta ez digutela berriz eragingo, min guztia paperean itsatsita geratu delako tintarekin batera. Zorritzarrez Irene Garciari hitz hauek idaztean badakit minak barruan jarraituko duela, berari bihotza puskatu zitzaion bezala hemen geratu garenoi ere hala gertatu zaigulako.

Irene Osakidetzako militantea izan da. Irene ELAko militantea izan da. Sindikatuko militanteok kate bat osatzen dugu, eta gutako bakoitza katebegi bat da kate osoari zentzua eta indarra ematen diona. Kateak katebegi ahulenetik puskatzen omen dira, bada Irene ez zen katebegi ahul hori. Osakidetzako arduradun izan nintzen garaian niretzat ezinbestekoa izan zen.

Hasi naiz faltan botatzen. Elkar ikusten genuenean azaltzen zuen poza orain oroitutako bakarrik egin dezaket eta ezin dut sinistu berriro sentituko ez dudarik. Poz hori transmititzen zuen hurbileko guztiei. Pertsonala politikoa ei da, Irenek politikoa pertsonal bilakatzen zuen eta militantzia elkar zaintzeko gune. Haserretzen ere bazekien, ondo eta argi gainera, baina bere irribarrea da oroitzapenetan iltzatuta geratuko zaidana.

Irenek hutsune handia utzi du sindikatuan. Hutsune handia ere Zumarragako Ospitalean, Elirengan. Eta hutsune handia etxean, senideengan, lagunengan eta, bereziki, Angelengan, bere bollitoarengan.

Datorren Maiatzaren Lehenean Santoñatik ekartzen zituen antxoak faltako dira. Irene faltako da. Tintak ezin izan du min guztia jaso. Izan daitezela hitz hauek bat-bateko agurrean eman ezin izan genizkion eskerrak eskaintzeko. Esker militantea. Eta lagunon eskerra. Gaur mina dugu, etorkizunean Irenerekin bizitza konpartitu izanaren zoriona ospatuko dugu, hil ondoren ere bizipoza transmititzen jarraitu dezan. Eskerrik asko Irene!

## Huelga indefinida en los transportistas que prestan servicio a Air Liquide en Oxinorte

Los transportista de Transmol que prestan sobre todo servicio mediante Air Liquide a la empresa Oxinorte –así como a otros servicios–, han convocado huelga indefinida a partir del 23 de octubre. El motivo de la convocatoria es defender los puestos de trabajo y unas condiciones de trabajo dignas. Se trata de los 25 transportistas que prestan servicio desde la planta de Barakaldo.

La empresa Air Liquide ha decidido romper el acuerdo comercial que durante años ha mantenido con la empresa Transmol para cambiar su proveedor logístico de cara a 2026. Se rompe de este modo con una relación comercial que se ha prolongado durante 30 años. Recordemos que Air Liquide y Oxinorte presta servicio a Osakidetza y otros servicios públicos. Esta situación se da cuando Oxinorte ha instalado una nueva turbina para producir más gas y ser capaces de vender mucho más del que ya venden. Sin embargo, ni las empresas Oxinorte ni Air Liquide se han preocupado por la situación de la plantilla afectada, y Air Liquide quiere adoptar medidas que, además de destruir empleos, empeoran las condiciones de trabajo de la plantilla.



## Finaliza sin acuerdo el periodo de consultas del ERE en Maderas de Llodio

El proceso de consultas del ERE de Maderas de Llodio ha finalizado sin acuerdo ante la falta de voluntad de la empresa para reconsiderar su decisión de trasladar un 40% de la producción y despedir a 39 personas trabajadoras.

Durante estas semanas, la parte social ha presentado hasta cinco propuestas alternativas que permitían mantener el empleo y la actividad productiva en Llodio. Sin embargo, la dirección se ha mantenido enroscada en su postura inicial, rechazando valorar seriamente las opciones planteadas.

En la última reunión la empresa planteó una última oferta que reducía los despidos a 35 y planteaba determinadas condiciones económicas que el Comité considera totalmente inaceptables. Además, no se ha considerado en ningún momento la posibilidad de mantener la producción en el centro de Llodio, lo que demuestra la falta de compromiso con la plantilla y con el futuro industrial de la zona.

En este contexto, el Comité de Empresa denuncia la actitud de las instituciones públicas. El Comité denuncia que la Diputación Foral de Araba y el Gobierno Vasco no han mostrado la más mínima implicación.

*Agur eta ohore,  
Sebas*



## Sebastian Andreu Larrañaga hil da, ELAko militante historikoa eta Batzorde Eragileko kide oihia

Urriaren 6an Sebastian Andreu Larrañaga hil zen Bilbon (Azkoitia, 1957). Gazte gaztetatik ELA izan zen bere bizitzaren ardatz nagusietakoa. Hamasei urterekin hasi zen sindikatuan militatzen. Oso gazte Azkoitia utzi eta beste lagun batzuk bezala Bilbora joan ziren Sebas eta Begoña Eizagirre Ugalde, bere bikotea, dena utzita. Biak, ELAko militante finak, sindikatua

martxan jarri eta sendotzea zuten helburu. Gauzak honela, Sebas eta Begoña ELAren proiektuari lotu ziren konpromiso handiz.

Sebasek bere ibilbidean ardura ezberdin eta garrantzitsuak izan zituen. Metalean egon zen arduradun; zerbitzu publikoetan, zehazki Ertzaintzako ardura eramaten; Gasteizko Eskualde

Arduradun urte mordo bat; Batzorde Eragilean negozioazio kolektiboa eta gero Enpresa Txiki Ertainen arduran; Bilboko Eskualde Arduradun, lan osasunean... Ardura guztietan dedikazio handiarekin, bere onena emanez, ekarpen garrantzitsua eginez.

Leire Txakartegik hitz batzuk eskaini zizkion Sebas bere agurrean sindikatu osoaren izenean. "Sebas, gauza guztien gainera, ELAkoa zen, sentimenduz eta identitatez. ELA zer den eta zeren zerbitzura dagoen oso garbi zeukan. Langile klasearen eta Euskal Herri askearen alde borrokatzeko tresna garen heinean, zer garrantzitsua den sindikatu bera sendo egotea eta gure autonomia politikoa zaintzea. Hau odolean zeraman. Sindikatua utzi zuenean ere inoiz galdetzen zidan: 'zer gertatu da gatazka honetan?' Edo, 'zergatik hartu dugu posizionamendu hau?' Ez zuen azalpen luzerik behar izaten, segituan kokatzen zen, ELAkoa zelako errealitatea aztertzeko zituen eskema eta tresnetan ere".

Leire eta Sebas duela urte asko ezagutu zuten elkar, ELAko Batzorde Eragilean. Horregatik, ELAko ordezkari gisa hitz egiteaz gain lagun bezala ere mintzatu zen.

"Bai, bere bizitzaren ardatz nagusi bat izan zen ELA, baina bere benetako euskarriak Begoña, Alaitz eta Joana alabak eta Sare bilobatxoa ziren. Bere arnasgunea Labeingo kanpina... Horregatik, Begoña, Alaitz eta Joanari ere besarkada bana. Garai hartako sindikalista gehienen kasuan bezala, inguruan zeuden emazte eta alaben eskuzabaltasun eta babesik gabe ezinezkoa izango zuelako Sebasek ELAri egin zion ekarpena horrenbestekoa izatea. Mila esker zeuei ere, bihotzez!".



# GURE ZAINZAILEAK DENON ZAINZAILEAK

**I**rudian ehunka lagun ageri da, gehien gehienak emakumeak. Guztiak zaintza sektorean dihardute. Batzuk erresidentzietan, beste batzuk eguneko zentroetan edo etxez etxeko zerbitzuetan. Badira ere, noski, esku-hartze sozialeko edo aniztasun funtzionaleko langileak, besteak beste.

Emakumeak, langileak eta, kasu askotan, prekarioak. ELAk urteak

daramatza borrokan egoera iraultzeko. Azken hogeit urteetan 5.000 greba egun egin dira zaintzarekin lotutako sektore ezberdinetan. Guztira 25.000 emakume inguruk parte hartu dute bertan. Horri esker zaintzako sektore askotan 35 orduko lan jarduna ezarri da, eta hogeit urteotan langile askoren gutxieneko soldata bikoiztu ahal izan dugu.

Baina lan handia dago aurretik. Urruti dago zaintzaren sektoreak

behar eta merezi duen aitortza. Horregatik ELA mobilizatzen jarraituko du. Horren lekuko urriaren 7an Gasteizen 'Euskal Zaintza Sistema baten bidean, publikazioa!' lelopean egindako mobilizazioa. Oraindik ere nagusiki pribatizatutako sektorea da zaintzarena. Egoera irauli nahi bada, ezinbestekoa da zaintza sektoreko zerbitzuak publikatzea. Horregatik ELAk mobilizazioekin jarraituko du. Orain arte egin duen bezala. Eutsi!



Esta revista se elabora con papel y procedimientos sostenibles

Franqueo concertado

NO 08/129